

Iñaki Barrena

EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

Brasil 2010: hauteskundeak



Hauteskunde kanpaina hasi da Brasil. Urriaren hasieran errepublikaren presidentea, hots, Lularen ordezkoa hautatuko dute. Duela zazpi urte —hiru aldiz presidentziarako hauteskundeak galdu ondoren—, sindikalista metalurgiko batek gobernu federalaren burua eskuratu zuen. Gauza asko aldatu dira zazpi urte hauetan Latinoamerikako nazio populatuenean, dudarik ez. Partido dos Trabalhadores (PT) izenekoak koalizio gobernuak zuzendu ditu, baina kritiko askoren ustez ez da gauza izan oposizioan errebindikatzen zituzten politikak martxan jartzeko. Iraganeko *Fora FMI*, *Nao ao pagamento da Dívida Externa*, *Reforma agrária*, ja leloak ez dira praktikan jarri, agian burgesiaren parte batekin paktuak egin dituztelako. Horregatik ere PTn eszizioak eta banaketak izan dituzte, nabarmenenak PSOL-ena eta Marina Silva, Ingurumen Ministroarena, orain Partidu Berdearekin presidentziarako aurkeztzen dena.

KONTRASTEAK. Brasilen aberats asko dago. Hego Amerikako lurraldearen erdia baino gehiago okupatzen duen estatu honetan industrializazio, produkzio eta kontsumo tasak altuak dira, eta moneta indartsua dute. Aldiz, Lularekin abian jarritako *Fome zero* programak ez du arrakasta handirik izan, eta oraindik ere



INIGO AZKONA

lau brasildarretik batek —ia 40 milioi pertsonak— gosea pasatzen du egunero. Pobreak izan dira petisten (PT) gobernuen politikan etengabeko erreferentzia eta administrazioaren aurrekontuak birbanaketa ekonomikorako erabiliak izan dira. Dena den txiroentzako programak eta poltsak mugatuak dira eta zerikusi gehiago izan dezakete karitatea-rekin justizia sozialarekin baino.




Txiroentzako programak eta
poltsak mugatuak dira eta
zerikusi gehiago izan dezakete
karitatearekin justizia
sozialarekin baino



ERLIJIOA. Mendebaldeko okupatzaile eta kolonizatzaileen arrastoak elizetan islatzen dira. Amazoniara zein Atlantikoko irla paradisiako urrunetara joanik, herrixketan tenplu kristauak dira erai-kin handien eta zentralenak. Egia bada ere Askapenaren Teologia, marxismoaren eta kristautasunaren ezkontza ideologikoa, Brasileko herri mugimenduetan presentea dela oso, nire gusturako erlijioak herriaren opioa jarraitzen du izaten. Gainera Eliza, Evaren jatorrizko pekatutik hona, patriarkatuaren oinarri sendoa da. Seguru asko hurrengo presidentea emakumea izango da (Dilma Rouseff; PTkoa) 2011ko urtarriletik aurrera, eta horrek eragin positiboa izan dezake emakumeen berdintasun eta askapenerako. Baina azken bi legealdietan argi geratu denez, Estatuko Gobernuaren duenak ez ditu aldaketa sozialerako karta guztiak eskuetan. Gobernuaz gain, gizarteak behar du aldaketaren gidaria izan. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Airean dabilta uhinak garraio, ETak iragarritakoa hobi. Eguna joan biharamuna etorri, eta hobi berean plisti-plasta azala muga. Ebidenteena eskura, atzaparrak lokatzetan haize errota, kaioak uxatzeko moduko mugimenduekin entretenitu nahi gaituzte beren ezinez ogibidea gurutze. ETak hartu du bere erabakia estrategia berriaren abiadan. Ezker abertzaleak behar du berea findu eta politika herrikoari ekin. Horretan datza bere ardura, urtetan nekez lortutakoari jarraipen sendoa emanez bildu lezake bere inguruan berarengandik aldentutakoa. Honek ematen die izua egoera

Beldurrak

lazgarri honekin gustura dabiltzanei. Kartzelak militantez lepo nahi dituzte agintariek eta ingurukoek beren bakea ikur. Eta ulergarria zait, haizearen jabetza ere duenak ez du nahi izaten berea ez den enbatarik, babestu gabe harrapatuko duen ekaitzik. ETarik gabeko Euskal Herriari diote beldur, kartzelak militante gaituez hutsik eta herriak bere herritar emanez aberastuak irudikatze hutsak erotzen ditu, orain duten agintea demokratikoki mantentzea ez dela posible jakitun. Gehiegi dute jokoan eta dena galtzeko, tranparik egin ezean irabazteko gai ez denak jokatze hutsak galtzen baitu. Garai hobeak datozkigu, zain geunden. ■